

AUTOEBALUAZIOA

I.go MODULUA: FARMAKOEN BANAKETA ORGANISMOAN

1. Banaketa koefizientearen eragina banaketan
 - a. Banaketa oreka lortzeko denboran dauka eragina
 - b. Banaketa oreka ematen denean ehunetan lortzen den farmako kontzentrazioan dauka eragina
 - c. a eta b zuzenak dira**
 - d. Guztiak okerrak dira
2. Pisu molekular baxuko eta lipofilia altuko farmakoen banaketa
 - a. Batez ere odol fluxuak baldintzatuko du haien banaketa
 - b. Batez ere banaketa koefizienteak baldintzatuko du haien banaketa
 - c. Odol fluxuak eta banaketa koefizienteak ez dute eraginik farmako hauen banaketan
 - d. Lehenengo bi aukerak zuzenak dira**
3. Farmako baten frakzio askea odolean handitzen denean
 - a. Farmakoaren gutzitiko kontzentrazioa gutxitzen da eta ez da sekula dosia aldatu behar
 - b. Banaketa bolumena baxuagoa da eta farmakoaren gutziko kontzentrazioa handitzen da
 - c. Banaketa bolumena handitzen da eta farmakoaren gutziko kontzentrazioa gutxitzen da**
 - d. Farmakoaren gutziko kontzentrazioa handitzen da eta dosia gehitzeko beharra sor daiteke
4. Farmakoen banaketa bihotz-gutxiegitasuna duten gaixoetan
 - a. Ehun batzuetan baxuagoa izango da odol fluxua ezberdina izango delako**
 - b. Ehun guztietan baxuagoa izango da odol fluxua ezberdina izango delako
 - c. Banaketa ez da aldatuko kasu gehienetan
 - d. Erantzun guztiak okerrak dira
5. Proteina plasmatikoeekin %98 lotzen den farmako baten frakzio askea handitzen bada
 - a. Gutzitiko kontzentrazio plasmatikoa gutxitu daiteke. Dosia aldatu behar bada orokorrean dosia handitu behar da
 - b. Gutzitiko kontzentrazio plasmatikoa gutxitu daiteke. Dosia aldatu behar bada orokorrean dosia gutxitu behar da**
 - c. Ez da posologia aldatu behar
 - d. Erantzun guztiak okerrak dira